



A. MARTZELEN TESTIGANTZA

Agur On Mario Izeta, Bilboko Gotzain agurgarria eta gainerako arduradun eta adiskide guztioi! Nahiko gauza esan dabez nire kontura, baina bakarrik onak. Esaera zaharra da: ez dago arbolarik adar igar bakarik, ezta gizakirik ere hutsegite bakarik. Danakaitik parkamena eskatuz, gaurko ospakizun hau niretzat Jaunari eta zuoi eskerrak emoteko izatea gura dot.

Quisiera que, de mi parte, esta celebración se convirtiera en acción de gracias al Señor que tanto me ha ayudado en tantos años y en tantas actividades. Que Él bendiga la semilla sembrada.

Zerbait osotzeko hiru puntutxo bakarrik.

Lehenengoa: Nire bertso kontu eta kantuen sekretua argitu gura deusuet: gartzetatik izan dot joera hau. Herriz herri hasi nintzanean, Misino Santuak emoten, pena emoten eusten, batez ere, gizon eta mutilak: egun osoan nekatu ondoren, barriro eleizara etorri behar entzutekoak entzuteko. Orduan triptiko bat atera neban, sermoi ondoren guztiok eguneko bertso bi kantatzeko **“Damu dot, Jauna”** doinuaz, eta erabilitako gaiari buruz. Entzun

eta ikusi barik, ezin da jakin zein pozik abesten genduzan egunero. Buruz be askok ikasi eta etxean eta nunahi sarri kantatuz. Bertsoa beti erabili dot hiletetan, kanposantuan, ezkontzetan, berbaldi guztietan. Alderdi on bi ateraten dodaz bertatik: Euskaldunak pozik entzuten dabela bertsoa, eta eurak parte hartuaz pozago. Eta bertsoan esandakoa hobeto hartzen dabela buruan eta bihotzean. Gainera, amuaren muturrean arrainari ipinten jakon kopautxo lez dala; bertsoak dirala-ta, jente gehiago alkartzen da eleizan eta pozago.

Un puntito más: Este premio lleva el título: *“Karmelo Etxenagusiaren saria”*. Éramos muy amigos Kamelo y servidor. Y todas las veces que nos encontrábamos me preguntaba: *“Hi, Martzel gordeten dozak egiten dozakan bertsoak?”*; *“Oye Martzel, guardas todos los versos que publicas?”*. Nik 60 urtetik hasita idazten dodaz “Redención” hileroko aldizkarian eta Karmelok, antza, etxean hartzen eban “Redención”, eta bere amari irakurri eta kantatzen eutsazan bertsoak. Hil zanean maitasun haundiz atera neutsozan berari bertso barriak.

Azken puntutxoa: Karmelo gotzain zala, herriz herri joaten zan artzain ikustaldiak egitera. Baserri aldera joaten zanean, beti alkartzen zan Bizian Gorako aitita-amamakaz, eurakaz egoten zan isilik eta entzuten eta adore emoten eutsen! Bisitaren azken mezan beti ohartxo bat: zuek, aitita-amamok, ez dakizue zer gauza ederra dan Bizian Gora, sartu zaiteze lenbaitlehen.

Esanak esanda dagoz eta eginak eginda. Eskerrak Jaunari baserritar txiki honegaz hainbeste on egin daualako. Bedeinkatu dagiala ereindako hazia. Bihotzez eskerrak neure anai Pasiotar Nagusiei, nire bizitza guztian arlo honetara zuzendu nauelako. Eskerrak Bilboko gotzainei, beti onartu eta bultzatu nauelako ekintza guztietan. Eskerrak hainbeste laiko zintzoei, 60 urteotan benetan lagundu deustelako mila eratan eta maitasunez. Euren artean bereizten ditut Mila Eiguren eta Maria Angeles Angoitia, azkenengo 40 urtetan hur-hurreko lankide finak eta baliogarriak izan dodazalako.

Eta amaitzeko eta neure betiko ohitura beteaz, bertso koxkor bi, izten badeustazue:

**AGUR ANAI-ARREBOK / AIXKIDE EUSKALDUNAK
GUZTIOK GARA HEMEN / GAUR SARIDUNAK.**

(Doinua: Hona Bildots eztia)

Bihotz ta eskuak / zabal alkarri,
bizitza eginaz / gozo pozgarri.

Hau anaitasuna / hau da pozkari,
iturri dogula / “Karmelo sari”.

(Doinua: Mahai baten inguruan)

Hau da gaur guztiontzat
pozezko eguna
maitezko jarduna;
“Karmeloren sariak”
prestatu deuskuna.
Fedea ta Euskera
gure ondasuna,
euren alde da gaurko
jai ospakizuna;
gogoan zaitugula
KARMELO LAGUNA